EUZKEL--ATALA

GAURKO EBANGELIOA

Beinola, artu ebazan Jesus'ek amabi ikasleak eta esan eutsen: orra, Jesusalen'a igoten goaz, eta Gizonaren Semeaz igarleak esaniko gauza guziak beteko dira: arrotzen eskuetan emongo dabe, barre-iseka egingo deutsoe; baita zigorraz astinduta gero ilgo dabe; baña irugarren egunean biztuko da. Areik baña, ezin ulertu izan ebezan gauz oneik, eta esan au izkutua yakeen eta ez eben ulertzen. Eta Jerikoa urreratu zanean, itxu bat aurkitu eban eske, bide-bazterrean. Onek, andik etorren jentearen zaratea entzunda, zer ete zan itandu eban, eta Jesus Nazaretarra etorrela gaztiatu eutsoenean, oiuka asi zan: "Dabid'en seme Jesus, erruki zaite nitaz". Aurretik yoiazanak, ixilik egoteko iñoen, baña gero ta zoliago iñoan: "Dabid'en semea, nitaz errukitu". Jesusek orduan tink egin eban, eta beregana ekarteko agindu eban. Ara zanean itandu eutson: ¿zer gura dozu nik zuri egitea? Ak erantzun eutson: Yauna, ikusi dagidan. Eta Jesusek erantzun eutson: ikusi-zu bada: zure siñisteak sendatu zaitu. Bertatik argitu zan eta Yesusen atzetik yoian Yainkaoren ala goratuaz. Au ikusi eben guztiak goretsi eben Yauna.

IRAKASLE ONARI

¡¡BARRIZ ERE, AGUR!!

Atzo oraindiokan
Agur iñontsugun
Mañari'ra juatiau...
¡Orain barriz agur!
¡Eta tamalagua
Oraingo agurra
Ain bizkor juatiaz
Gu gaudik zerura!

Zerua egiña baliz
Millaka zatika,
Maite duen biotzak
Artzeko gordeta,
¡"Kirikiño" gaxua,
Euskeldunen aita,
Biotz askotan legoke
Zuretzat lekua!

Jauna'n gogua izanik
Zu eramatia,
¿Zertarako da gauza
Negar egitia?
¡Legortu ba begiak
Euskeldun maitiak,
Eta jarraitu zintzo
Maixuan bideak!

Lenago lez orain be...
¡¡Agur "Kirikiño"!!
Zure izena ez dogu
Sekulan aiztuko,
Esanaz umieri
Zein zan "Kirikiño"...
¡Pozik bizi izan zana
Pozik gero iltzeko!

GAZTELU JON.

ONDARRETA (LAS ARENAS)

AGUR, "KIRIKIÑO"

Eguna juan, eguna etorri,
aujenda gure ludija;
eriotziak, ebagiten dau
gure izate guztija.
Ainbeste maite izan genduan
Maxu gogoangarrija;
luditik juan da, bertan utsirik
Negarrez euskel-errija.

Kistar lanetan zuzen zuzena,
Egikeretan Euskeldun;
bere Euskera, ele maitia,
beti beragaz edonun,
Areriorik iñor ez zuben
danok giñan bere lagun
Biotz aundiko gizon zintzua
toki danetan ezagun.

Uste gabeko atzen agurrak
bete gaitu gu nai gabez
bere izena gure artian
Ez da aztuko ain errez;
Jaungoikua'ri eskatzen diot,
bere arimaren aldez
bizi dedilla, donoki goyan
beti betiko zorunez.

KURLOYA.

ERRIETATIK

BILBO

"KIRIKIÑO"-K ALDE-EGIN DAUZKU

Bildur-ikaraz antzera jarri nintzan ni-be, ogeta urtiak dirala ezagutzen neban gure Kirikiño maitiak, gure abendakide zintzo, apal, langille, uskurtzale, dedu-dedutsubak Ludi onen azaletik betiko alde-egin euskula jakin nebanian. Arrezkero, egunetan ibilli naz begijak malgoz darijodazala, konarte-barik lez, ames-oldozketan, siñistu eziñik egija etezan jazokun ori. Baña, zoritxarrez, egija ixan da bai.

¡Euskera gaxua: baltzez jantzi zaitez; zu biztutzen, goraltzen, zabaltzen, apaintzen... eta batez-be bijotz-bijotzetik maitatzen zinduzan irakaslia il da-ta! ¡Baita zuk, Euskelerri kutun orrek, auspezturik negaregixu, seme bikañetariko bat gitxijago daukozu-ta!

Eta gure abendea, ele, eresti, askitz, kirok eta gañeratiko gauzaen maitaliak garan guztijok jarraitu daigun bere ibilli zan bidietatik; eta besterik egin ezin dogun-ezkero, otoi-dagijogun Goiko Jauna'ri bere goguaren aldez.

SOKOA.

ERANDIO GOIKOA

Lurmendurik, amesetako gauzaen bat ote dan ezin sinisturik gengozan ain uste bako Kirikiño maitearen il barriya irakurri ta. Tamal anditzat geunkan geure eguneroko euskel-ataletik aldendu zanean, baña Orixe'k iñuan lez, orainguan bai aldendu yaku benetan. Ainbeste poz aldi igaro izan dausku irakasleak, batez be geure baserri tarran artean, bere euskera leun eta garbiyan idazten zituban izpar, edesti eta ipuin barreikarriekaz: Kirikiño'na da esatea, naikoa zan, danak, zaletasunik andienagaz irakurteko, euskerarik argiena ta geyen aitzen ebena zala ta.

Zoritxar andiya izan da Euskalerri eta geure ele kutunentzako, ze ondiño ainbeste gauza eder itxaroten izan doguz, ain gixon argi ta langille zintzoagandik, baña Jauna'ren naya bete izan dan ezkero, ez daukagu besterik bere alde otoi egitea baño, onelan erakusten emongo dogu, bizitzan maite ba' gendun, eriotzan be maite dogula. Geure tamal agurrak damotseguz, bere emazte, anai eta beste sendiko enparabai. G. B.

✤✤✤

Erri onetako adizkide batzun artean dago asmua, Bustintza' Ebaista (Kirikiño'n) gogo aldez jaupa bat egiteko. Aurrez esango da ze egunetan izango dan.

✤✤✤

Igaro dan astean obiratu zan Agirre' Yakobe, geure lagun eta Apurtuarte Club'ko lendakari dan Bikarregi' Erramon'an ama. Bere senarra Bikarregi' Pantzezka, geure adiskide ona, Erramon eta beste sendiko guztiari laguntzen dautsagu une onetan daukien atsakabean, eta otoi egiñaz ildakoari. G. B.

Astelenean obiratu zan andra zintzo eta ona zan San Juan' Simone. Laguntzen dautsagu bere sendi guztiyari zeñetan dan dagozan ainbat adiskide, eta tooi banagaz ildakuari. G. B.

✤✤✤

Polito abestu izan dabez Agate Deunaren abestiyak, Aurrera Beti Club eta Apurtuarte Club'ko mutillak. Tamala izan da obeto eralduta Batzoki biyak ez egotia, ainbat obeto ta geyago batuko eben da. Ez aiztuta euki urrengorako, ia gauza eder bat egiten dozuen.

Markelin geure lagunak
Asmua ei dauko,
Eustaki Eule maitea
Ikusten juateko.
Zartzaroko maitasunak
Alkarri erakusteko,
Eta, ipuntxu batzuk
Belarrira esateko.

Egualdi epel bat
Lastertxu ba'lego
Jagoba ta Amez be
Zugaz juateko.
Egualdi zain gagoz
Aupadea egiteko
Eule maiteari
Poz aldi bat emoteko.

AMEZ.

GETXO-NEGURI

Ederto baño edertoago deritxot gaurko EUZKADI'n "Artibai" adiskideak diñoanari, "Kirikiño" ixan zanaren (G. B.) aldez, meza bat egiteko Mañari'n euzkel idaz le guztiok.

Uste dot eretxiau beste euzkel idazle batzuri be ondo ixango yakela, ta orregaitik, itxaroten dot gauza au aurrera eroango dogula.

Ona ixango litzake, meza au, igande, edo jai egun baten egitea. Aste egunean ixan ezkeron, asko, ezin joan ixango gara geure landola, eta idazkolatan, onelako gauzatarako baimenik ez leuskigulako emongo.

Beste baten azpian ogia irabazi bear dabenak, onelako gauzak daukoz, ta orregaitik diñot, igande bat ixango litzakela egokiena, meza onetarako.

DEUN JOSEBA'RI ZAZPI IGANDEAK

Asi ziran igaro dan igandean Deun Iñaki txadonan, ta ainbat oste joaten da, autorkuntza emon, ta geure Jauna artzean Ortik igarten da Deun oneri erri auso onetan jakon zaletasuna, beste leku askotan lez.

AMAITUZ

Badoa amaituz geure adizkide Uribarri' Josuk egiten daben burtokia. Orain bidea apur bat atondu da, eztakit orregaitik ala eguraldi onak asi diralako, baña uste dot obeto bigarren gauzea gaitik. Eztago eguzkia lakorik bideak atonduteko. Batez bere, emen lez, udalak jaramon gitxi egiten dautzen bideak. Danok ipinten dogu geure aldetik dagoana, erriaren alde, baña eztakit be, zegaitik geuri etxakun jaramon apur bat geiago egiten. Noiz edo noiz elduko al jaku aldia geuri be. Bijen bitartean itxaron bear.

ALANGOKO BAT.

MAÑARI

KIRIKIÑO'REN ERIOTZA

Kirikiño'ren eriotza yakin zanian, esan bearrik eztago zelango atsakabe ta samintasuna artuko zan, berak ainbeste maite eban erri onetan. Emen danok maite gendun asko eta maitasunaren neurriz artu dogu atsakabia be.

Erritxu onetan uts andiya itxi dausku, baña bakigu Yaungoikuak euzkeldun andi onentzat zeruan gertauta auki daben tokiya bete dala, eta orrek arintzen dausku geure samintasun andiya.

Kirikiño luzarotxuan ebillen makalik, eta igaro dan asteko martitxenian, ondo ezegoala ta ogeratu zan. Beriala deitu yakon emengo osalari Areitio' Gotzon'i, onek ikusi orduko esaban oso txarto eguala, ta gura bazan beste osalari batzuri deituteko. Beriala deitu ta etorri ziran Bilbo'ko Arrese' Yosu eta Durango'ko Navarro Perpeto yaunak. Onek irurok batera esaeben Kirikiño oso txarto aurkitzen zala eta egun gitxirako biziya eukala.

Esan yakon geixuari osagillien eretxiya, eta ondo izango zala gertautia. Kirikiñok entzun ebaneko esaeban pozik artuko ebazala Eleizakuak, eta gertau biar ebala.

Eguasten goizian artu eban Gure Yauna, santuen bake, oneraspen eta maitasunaz. Bere adoria ain zan andiya, begira gengozan guztiyok arrituta geratu giñian, bere adore ta sinismen biziya ikusita.

Egun atan ainbat lagun etorri yakon ikustera, eta danari poz-pozik berba egiten eutson barreka-barreka zeinda osasunaz beterik egon balitz lez. Eguasten gaba be naikue ondo igaro eban, baña eguen goizaldeko iruretan luak artu eban eta goizeko bost lauren gitxiagotan zeruan iratzartu zan. ¡Au bai eriotza ederra!

Eguenian eta barikuan, erriko genterik geiyena etorri zan Kirikiño'ren etxera bere gorpuaren aurrian otoi egiten, baña batez be umiak. Onek bakotxa iru ta lau bider yuaten ziran gorpuaren aurrera otoi egiten eta gero banan-banan yuaten ziran ume gustiyak Kirikiño'ren gorpuari eskuan mun egiten. Olan erakusten eben neskato-mutikuak gizon andi arentzat maitasun eta begikotasuna, eta il da gero be goratu gura eben, ainbeste lan euzkerien alde egin eban gizona.

Bere obiraltzian, ondo agertu eben euzkel-idazle, irakurle ta enparau erriko gentiak Kirikiño maixuarentzako eben maitasuna.

Orren ganian eztogu geiyago ezer zetan esan, ba EUZKADI izparringiyak emon eban gauza guztiyen barri, ondo baño obeto. Eta oraiñ irakurle, arren eskatzen yatsu otoi dagizula Bustintza' Ebaista zanaren gogoaren alde, Yaunak bere babespian artu eta betiko atsedenian euki daiyen. G. B.

ORIXE'RI

Kirikiño'ren gurariya zan, igande gustiyetan emengo barriyak "Euzkel-Atal" orretan argitaltzia. Guk bere gurariyai yarraiturik, gura dogu leku apur bat, zuk aiñ ederto zuzentzen dozun "Euzkel-Atal" begiko orretan. Badakigu Orixe ona, lengo moduik, errestasun eta gatzik eztozula aurkituko Mañari'ko idazki onetan eta ganera uts asko be aurkituko dozula, orregaitik Orixe yauna asketsi. (1).

YUAN-ETORRI

—Domekan egon ziran emen, Bilbo'tik etorrita, Txabarri' Eurele, Goioga' Josebe eta Etxebarria' Elade, irurok Bilbo'ko andere ezagunak.

—Egun batzuetarako yuan zan Urkiola'ra, Dolara' Koldobika abade yauna.

—Bilbo'n aldi bat igarota etorri zan, Usaola' Martiñe.

Emen egun batzuk igarota yuan zan Bilbo'ra, Agirre Nikolase.

—Urkiola'n, dagoz bederatziurrena egiten, Enbeitia' Kepa oleskari ospatsuaren emazte ta alabia.

—Martitxenian agurtau genduzan emen Garamendi' Kandida ta bere emaztia.

—Urkiola'n, dago egun batzuk igaroten Ibartzabal' Martzeliño abade yauna.

—Bilbao'ra yuan ziran Agirre' Josebe eta Balerene aiztak.

—Elorrio'ra Abruza' Margarite eta Larrea' Erregiñe.

—Eguaztenian egon zan emen Lamikiz' Alpontsa abade yauna.

SANTA AGUEDA BATZEN

Astelen arratsaldian ibili ziran Santa Ageda batzen, Alde-baraiyetako mutillak. Oso polito abestuten eben, eta modu onian ta ordu onian ebiltzalako, arrautza ta lukainka asko batu eben ta ganera dirua be polito.

Ederto mutillak, eta datorren urtian be olantxe.

ABADIÑO'RA

Deun Balas yaiyetan Abadiño'ko periyetara, emendik gazte ta zar asko yuan zan. An egun ederra igarota pozik etorri ziran.

GEIXUAK

Geixorik aurkitzen da Labarrondo-Errota'ko Belakortu' Kaulde neskatillia. Arin osatu.

MAÑARIKO.

(1) Esker onez eta poz pozik artuko dogu nik eta EUZKADI'ko irakurleak bere, ortik bialtzen dozuena. Eskerrik asko.

ORIXE.

ONDARRU

ERIOTZA

Juan dan asteko larunbatian ill zan bere bizitzako ogeitabat urte ebezala, emen ezaguna eta gure adiskidea zan Egiguren' Joseba.

Bere ama eta anai arrebari, batez be Bitore gure adiskide maiteari emoten deutsogu gure samiñ agurra. G. B.

OSAKUNTZA EGINDA

Bilbo'n Basurtoko Gaxotetxian osakuntza egiñ eta bertatik ondo aterarik, etorri da etxera Azpiazu' Gotzone, "Biar" EUZkadi'ko gure lagunaren emaztea. Asko poztuten gara.

GUDARITZIA BETETEN

Bilbo'ra juan da gudaritzia egiten gure adiskide Iriondo' Joseba Mirena. Ezara txarto ibilliko eta ori gura dautsugu.

GOGO IÑARKUNAK KOLDOBIKATARREI

Laster eukiko dabez emengo Koldobikatarrak Gogo-Iñarkunak. Euren zuzendari Aita Agirre J. L. izango dabe.

AKEITETXE ETA ARDOTEGI BARRIA

Gure adiskide eta euskeltzale sutsua dan Urresti' Jon'ek idagiko dau oingo egunen baten akeitetxe eta ardotegi barri bat Nasa txaidian. Asiera on bat orretaxe jarraitzeko gura deutsugu Jon.

MAIXU BARRIA

Gure adiskide Basterrak G. B. itxi eban utsunia beteten etorri da Bispe jauna, oiñ arte Morgan egonikua. Ondo etorria izan zaitezala gure errira eta bertan zagozan artian ondo igarotia gura deutsugu.

AURRERA'N

Gure Batzoki Kirolzale Aurrera'ko gazte zintzuak, gogor diardue arazu batzuetan. Antzerkiak eta abeslari-taldia gertatzen diardue orainguan. Antzezlariak betikuak dira; Antzubixa, Etxeba, Campos eta abar. Orreik dira "los grandes actores". Baña orreiri ez deutsagu txalorik jo biar, ba orreik betikuak dira ta oraiñ arte txalo asko artu dabe. Oingo gure txaluak Lesmes Arrizabalaga'rentzako dira. Gizon "gazte" au, abeslari bikaña eta eres-zaletasun andikoa, eta batez be "gazte alaya", beti gogalai pozgarriya daukona. Dabill talde bat baturik abesti politak eureri erakusten. Txalo ugariyak zuri Lesmes eta zuri lez zure taldeko lagunei, eta baita be Aurrera' ko artezkari batzari, zuri emoten deutsue zan erreztasunak gaitik. Ekiñ gogor ortik.

ARTIBAI.

OTZANDIYO

ILDA GURE KIRIKIÑO

Bai, otzandiyotarrak ainbeste maite genduan Kirikiño il da. ¡Ze atsekabia! Euzkera maitiak galdu dau oñarririk onenetariko bat. ¡Amaika alegin egin dau bere bizitzan bai itzez eta idazkiz gure euskera maitia garbituta goralduteko! ¡Ze pozik irakurten izan dira bere idazkiyak! Berarizko altasuna eukan Yainkuak emonda, leun eta txukun idazteko, ta orregaitik berak asmauriko Euskel-atalagaz sortu dituz ainbeste idazlari barri. Au mirariyau Kirikiñok bakarrik egin dau, augaitik euzkaltzaliok zer deutsagu betiko gomutapena. ¡Baña, ze arin yuan yaku! Pozarren eguan, gixaixua, Mañariko bere txokora etorri zanian bakez bere zartzarua igaroteko ta bos illabete ordukо yuan yaku. Guretzat miñ andiya izanda ain laster yuatia, baña beti, ta beti onetsiya izan daitela gure Yainkuaren naiya. Otoi bero bat eskatuten deutzuet irakurlioi bere goguaren alde eta Gure Yaunak bemotzala betiko zoriyona. Goyan bego.

BEKOLETA.

✤✤✤

G. B.

¡Il da Kirikiño, il da!
il da geure irakaslaria,
il da geure idazlari
maitien izan dana.

Biotzez eskatuten deutsuet
euskaldun guzti guztioi,
danok alkar bat einda
biar dogula egin otoi.

Biar, biarrekoa da au
euskaldunen artian,
batez bere idazlari
ta irakurlen artian.

¡Agur, betiko Kirikiño!
eiten deutsugu danok,
batez bere zure ondoan
bizi izan garianok.

JUAN ETORRI

Bilbora: Bengoa, Julene, Kanal Miren, Ajuria G. Miren, alkate jaunaren alaba, Uribe Bertoldo, Ajuria Bartolo, Heredia Plora, Unzalu Euloxio, "Txori" onek aspaldiyan yuen etorri askotxo dabil, ¿zer ete dabil?

Bilbotik etorri direz euren ikustetxue eiten, Narzilla Roxelio ta bere emazte, Oyanguren Juli. Ondo etorriyak.

EZKONTZAK

Lengo egubenian ezkondu ziran Urkiola'n Ogara Julen ta Ixasi Petronil. Larunbatian G. Gordobil, Balentiñ Mungien, ango neskatilla bategaz. Zorionak opa deutseguz.

EGURALDIYA

Egunez eguzkie baña otz ta gabez eguraldi gogorrak einten deuskuz aspaldiyan gora bera andiyak dabiz.

DEUN AGATE EGUNA

Beste urtietan lez, ederto ospatu dabe erri onetan be gaztiok, kanpa soñua belarriyetan euki dogu gau guztian. ¡Ze poza!

GORBEIKO OTSUA

Lengo baten irakurri gendun, zelan otsua il eben Orozko'ko eiztariyak, baña, ¿badakizue zer yazo dan? Otsu ori txakurra izan dala, ta 500 laurleko eurei emon biarrekoan eurek emon biarko deutsiesela txakurraren uzabari.

DIMA'KO OLAZABALEKOAI

Poz pozik irakurri dogu zeure idazkitxue. Uste izan gendun Diman'ez egoala idazlerik, baña agertu da. Ia ba aurrerantzian be bota orko barriyak, zeuek baño exarie izan bape bakuok, ta emon entzutea erri ori alkarregaz ondo aitu, ta yarraitu zorionez aurrera.

LANGILLE ZAR BAT.

ZEANURI

AGEDA DEUNA'N KANTAK

Aterik-ate goxean mutil koskorrak ugari ibili ziran aur egunian. Gabean nagosiak, baña aurte ugari oneik be. Abestiak danetarikoak lege zarekoak deituten dautsienak da abar.

San Blas Santa Ageda presko samarrak izan dira iragarri ta egozan lez ermita biotan egin ziran elizkixunak. Uregin mezea euki eban Dima'ko abadeak itzaldia Arana Eustasi jauna. Santa Ageda'n mezea Aldekoa' Jon jaunak da itzaldia Angoitia Fabian jaunak. Eguraldi otzak egin arren oste andia izanda ermita onetara.

NASKALDIJA

Deun Balasi egunian emen izan zan Goikoetxea Erramon ertillaria.

Eibar'tik etorrita Manterola' Gabirel jauparia.

(Araba) Karkamo'tik etorrita emen izan da Gorostiaga Segundo jauparia.

Zeberio'tik Arandia, lur-nauzlari edo peritua.

UME BAT ZERURA

Ipizar'ko Sotero'n da bere emazte Atutxa'ri ume gazte bat il yake.

ETXE-BARRIE

Ezisi'ko auzunian egiteko urtea dauko Ozerinjauregi Bizentek alkate zarrak.

ELEIZ ORRIE

Banandu dabe etxeetara, dakazan gauzak: Eleiz egutegie, Ebanjelioa, Kristiñau ikasbidea betiko bizitza, Egia (olerkia), parrokoaren deyak, Garizumen sarrera, Elezkixunak, ta abar.

BASERRITAR BAT.

BAT ETA BESTE

EUSKAL-ESNALEA'KO ITZALDIAK

BOSKARREN SALLA

Liburu txukun bat yaso dogu egunokaz. 162 orrialde dauz, zortziki orridunak. Ikus aurkibidea.

Txistu ta txistulariak", Olaizola' Josebaren itzaldia.

"Kirolak ongille ala kaltegarri", Zinkunegi Joseba'ren itzaldia.

"Euskeraren etorkizuna", Mokoroa' Justo-Mari'ren itzaldia.

"Sendakintza gizadietan zear", Inazio Artetxe'ren itzaldia.

"Gorbaie'ko gaztagintzea", Larrakoetxea B' J.'ren itzaldia.

Noizbait asi-bearrak giñan gai politak eta mamintsuak euskeraz erabilten. "Euskal-Esnaleak" orretan egin daben lana ezagugarria da. Gizon yakintsuak euren eskuerako gaietan euskera samurra erabiltea baizen bide onik ez da euskera lantzeko. Badiardu "Euskal-Esnalea"-k urtean urtean Euskal-erriko gizonik ezagunenak deituaz, gure izkuntza, kortatik, ikullutik ataraten. Liburu au irakurten eztogu astirik galduko, ta erosi izana etxaku damutuko.

Salgei Bilbo'n, Emeterio Verdes'enean. Donostian, San Ignacio de Loyola'renean, eta Martin y Mena'renean. Bakoitza, 2,50.

IZPARRINGI

Neri, Elorregi, dagistazun eskari au "Lengo erakutsi bear diazuna da *barri* erderatik artua dagola", betetzen dizut onela, bere idazkian imiñi nituen itzakin berakin: "Asmatzalle *arentzat* erderakada utsa zan *barri* "noticia iragarteko", eta au argi dago. Erderatik arturikoa etsi ez ba'zuan, ¿zergaitik itz berria asmatu? Ala asmatu ote-zuan *gaur* artua zala uste izan, eta ez *gaizki* artua zala etsi zualako?

Gure esa-mesan oyetan ez-dago iñor bearturik ezertxo erakusten ZERORI *baizik*. Zeu zera *izperringi* utzi ta *berringi* artu zenduena, *izperringi*, zeure ustez, "*oso gaizki dagolako*".

¿Noiz irakatsiko diguzu? ¿Ala ziñetsiko ote-degu Elorregi'k esan digulako? *¿Magister dixit?*

"Bigarren esango dizut *barri* bakarrik dagoala erderakada balin bada, *Its*'ekin batuta erderea ez ote dan". Zeure itzak.

Ez-diazu galde au ongi egin. "*Barri*", be *rez*, ez-da erderakadea, baña, bere ikurpen egokiz gañera ezarten ba-diozu erderaz berekideak duan beste ikurpen bat, orduan erderakada etsiko da. Adi bidez: *ain* (tan) eta *gutxi* (poco), *berez* euskera dira, baña itz neurtu oyetan:

Ez-degu bear oñeztarrikan,
aingutxi gainboatarrik;

itz ori erderazko *tampoco*'ren ordez dago, izkera ontan *ni*'k duan ikurpenakin, eta au ez-da euskera: jantzia, bai; gorputza, ez.

Begira beste bat. "*Eskier*", *seguro* da, ta *eskierki*", *seguramente;* baña "*eskier*" au da *seguro, cierto, indubitable*. Egunetan dirakurt: "La Polar" *Eskier-Bazkuna*". Iragarki au ikatzi duanak, *Compañía de Seguros* euskeratu nai izan du, ta eman dio *eskier* eri *seguro*'k erderaz duan beste ikurpen bat; txinditzak galtzorietatik aldenduteko egin oi-dana, ta *seguro, seguridad*, lat. *securus*'ek duan bezelakoa ezarri. "Eskier-Bazkuna" ba'darabilgu, emendik bosteun urtera norbaitek galdetu dezake erderakadea dan, eta zergatik dan ainbat urtetan "Compañía de Seguros" izan dan itz au; baña, urteak gora-bera, gaur, eta bigar ere, erderakadea.

Itz oyek ez-dira erdel-itzak, baña ezarri dizkiote erdel-gogoa, euskeraz ez-dutena, erdel-itzaren tajuak bidekaturik.

Diodan augatik, uste det, bastertu bear dezula "Perez-Arregi"-ren adibidea beste aldi obe baterako. *Perez* ez-da *erderakadea, erdera* baizik.

Beraxeago diostazu *elaberri* ez-dala nik diodan bezela "*noticia*", "naiz eta Azkue jauna jakintsuak onela esan bere iztegian, baizik *discurso ocioso*" Arana-Goiri'k dion bezela" eta zure ustez "*berriketa* Axular'en Ikusten dan bezela".

Nik, berriz, uste det itz batzuek eralben bi ta geyago ere bai-dutela, ta ez-dakidala zerk lotu duan "elaberri" eralben bakarra eukitera. *Itzez-itz* (eta Arana-Goiri'ren *discurso ocioso* ontzat eman dezun ezkero, ta ongi) "*elaberri*", *palabra nueva* dala, "*elhe*", *palabra* (Arana-Goiri; zerorrek diozun tokian bertan, lerro bat gorago) eta "*berri*" *nuevo*, ta Axular'en *berriketa* egoki zayola; baña ez-dakidala zein zio dezun Azkue jaun jakintsuaren *noticia*, "*elaberri*'ri ukatzeko. "*Ilberri*", *recién muerto* da, ta *ola dalako*, ¿ukatuko ote-zenduke, beste gabe, *nueva de defunción* danik?

Orain; "*elhe*D, Arana-Goiri'k dion bezela, *palabra* BA'DA, ¿ez-dirade berdiñak *elaberri* ta *izperri?*

Baña; egiz, Elorregi, *discurso ocioso*'ren ikurpen baizik, baizik ez-duala? Nere pozak,, pozura: ¡Zenbat aldiz ez ote-degu ira korri, euskeldun berriak (eta *isparra*'ren asmatzallea ere bai zan) ez dakitela eskuartean zer darabillen; eta itz onek ez duala au ta bestea esan nai; erriari ori ta ura sartu nai dizkiotela... *¡Aditzalle onari agur!*

Zerorren itzak dira:

"Nik *itzbarri* idaztean erabilli bear dala esaten det, ez izketan eta jakin bear zenuke *fonetika*'ko legeak *izketarako* direla (phone, gerkeraz voz, sonido. Alemany) eta ez idazteko".

Eskarrik asko, ikaskizunagatik; baña, bai dakit zer dan *phone* ta *fonética* ere bai; ez nekiana *fonetika*'ko legeak ez-dirala idazteko zan.

Fonetika'ko legeak izketarako dira: ¿zein *izketarako? ¿izketa oguzirako* bakarki, ta *izketa idatzirako* ez? ¿Zeñek *izketan* erabili bear dizki; *erriak?* ez: erriak *fonetika* berak dagi ta berak darabil, zer dagian eta zer darabillan jakitzeka; ez-du erriak izketaren legerikan esagutzen, eta lege oyek beretzat indarrik ez-dutelako, atera dizki izkelgiak eta izkelgi bakoitzean ainbat aldakuntza, ainbat itz mueta. *Irakorleak?* -ez; irakorle ona ba'da, idatzirik ikusten duana irakorriko du. Nere *esetz* au *bayestu* nai izan ezkero, euskel-irakorlea aldatu bearko genuke, *sanskriterazko* irakorle antzera, ta euskel- *sa* (*n*) *hitApathaz* irakorten beartu euskel-*sandhi* edo *sandhia* irakatsirik: ¡lan polita ta onurakorra! *Idazleak?* -bai: auxen da-ta batez ere guk darabilgun arlo ontan- *fonetika*'k lotzen duana.

Idazlearentzat, erriaren izkeratik, *fonetika* legeak atera ta aukeratu dira, irakorlien bitartez, izkera bat, txukuna ta aldagaitza oguzleidazleak erabil dezatentzat.

Begira zerorrek ere, enonek diodana nola dagizun. Nere idazkiari zioa eman zitzayon lanean jarri zendu *berringi*. ¿Zergatikan ez-dezu *berrieunki* idatzi? Besterentzat ote -dituzu legeak?

Zuk egin dezuna dagite ta dagigu euskelidazle orok. Gaizki egiten degu?

Adizkidetasun geyago ba'nu, esango nizuke, onginairik, etzaitezala iñoiz beartu aldeztueziña irozoten.

Esanak-esan; zeuk dezu oraindikan itza. ¿Noiz irakatsiko diguzu "*izperringi*" *oso gaizki dagola?*

ARANBELTZ.

Representaciones

de Casas industriales, solicito para San Sebastián y Guipúzcoa.

Informarán: don Juan Manuel Bengoechea. Gran Vía, 12, tercero.

AXULARTARRA'RI

¿Zer gatik neri galde au: "itz oen jabe ateratzen al zera?: "gaur erderatik artutako "barrija" lakoxia da". *Gaur* artu?"

Itz oyek beren jabia dute; baña, zure asmoa argi dakustalako, erantzun bear dizut *bayetz*: *gaur* artu degula; labatik arakoa dala; oraindikan bero-beroa dagola.

Au bezelako *berriak*, idazten ari naizen mai-gañean dauzkat beste batzuek ere, ogeitalau ordu baño *zerbait* geyago duten oyek: Leiçarraga' Ioannes (ez al zenduan ezagutzen... Beraskoitz'ekoa?) idazleak *bere* "Testamentv"-an utzi dizkit, eta... bear ba'dituzu, bidaliko dizkitzut.

Axular'en *elaberriak eta erran-merranak*, ez-deritzatzu, Elorregi'ri, idatzi diodana irakurri ondoren "Gvero"-rako ongi daudela?

ARANBELTZ.

TINTORERIA INGLESA

Plaza Nueva, 5. Teléfono número 13.073.

Temas Vascos

A "Orixe"

Quisiera dar por terminada mi interpe- ción en esos latines, repitiendo que no te- go la menor autoridad para ocuparme de ellos.

Pero perdóneme que advierta que ninguna de las dos afirmaciones que usted me atribuye he hecho yo (ni se la he atribuido siquiera a Meyer-Lübke, que es quien, probablemente, me ha metido en el *in diem*).

El 30 de enero decía simplemente que *Martixen* "tiene que derivar de *martis*", pero en la forma *martis diem*". El 8 de febrero decía que "los vascos han debido incorporarse el *diem* (acusativo), porque en este caso, y no en *dies* (nominativo) o *die* (ablativo), tenían el uso más frecuente de nombres de los días en latín". Es decir, que yo nunca he dicho ni atribuido al señor Meyer, quien resulta que me he ganado esta aterrizada contradicción de "Orixe" que *diem* tenga nada que ver con la fecha, ni simplemente con el uso. Si se empeña usted en apretarme mucho, tendré que argüir que es probable que los vascos entonces, siendo muy pocos quienes sabrían escribir, no empleaban la fecha.

Mi ejemplo del artículo del 6 del corriente lo interpreta usted del modo contrario al que tiene en el Derecho. Y por cierto que ya podía usted haberme sacado de dudas, consignando cuál es el caso singular y la preposición con la cual tiene el sentido más determinado, más concreto, más individual. Nuestros lectores (que de éstos no sean muy latinos) y yo hubiéramos aprendido con ello.

En efecto, según resulta del lugar por que lo cita, si la frase de Paulo, en vez de ser un principio, formulara un ejemplo, sería ésta: *In diem Martis debitor est, ut antea solutum in diem Martis repetere non potest*. Así verá usted que este segmento de tiempo desde hoy hasta el día del vencimiento no reza con el Derecho con mi ejemplo; no cabe mayor individualización ni más necesaria.

El principio, tal como yo lo consigno, lo entiende el Derecho, se ha llevado al Código civil francés diciendo "lo que se ha pagado *por adelantado*, no puede repetirse" (ese *por adelantado* me parece algo que tiene mucha miga); y al español estas otras palabras: "lo que *anticipadamente* se hubiese pagado en las obligaciones a plazo, no se podrá repetir".

Para que, si acaso no está usted en lo cierto, tenga usted un elemento más a considerar, piense usted en la significación de la frase *en su día*, que yo creo será la traducción propia del *in diem* del Derecho. En su día no es todo el tiempo comprendido entre el día de hoy y la mayoría de edad, pongo por caso, sino el día de la mayoría de edad, precisamente, no otro alguno. En la parábola del hijo pródigo podemos suponer el caso, si el hijo que reclama su legítima hubiera sido menor de edad en el momento de la reclamación.

A "Txadon-Zaya".—Igande.

No se si cuanto después de la fecha de su envío he escrito habrá convencido a usted de la inverosimilitud del sentido que le concede a *Igande*.

Con su argumentación resultaría que el euskera es bueno en lo que cabe interpretar, con demasiada buena voluntad, como confirmación de las Sagradas Escrituras, y no lo es en todo lo demás.

Porque en griego y en latín, semana viene de siete; pero, ¿dónde ve usted eso en *astea?* ¡Y además, ¿cómo es que *astea* nuestro se compone de solos tres días? Por último, ¿tampoco el *laurenbia* que supone un *laurenbio*, le convence de que los nombres de los días seguían adelante?

Incidentalmente puse en uno de mis artículos que *igande* debe ser igual a *egunandi*, el día grande, y de influencia latina eclesiástica.

Respecto del segundo componente *ande* encontramos que en multitud de terminos del País Vasco se dice *igandio*, y si ir más lejos, en nuestro Donostia.

En cuanto a *egun*, no me ha venido a los puntos de la pluma antes de ahora recordar que del mismo modo que *egun* es también *iguski*, *egun* puede haber dado lugar a *igun*.

A usted, en cambio, le será preciso para mantener la discusión, encontrar un caso claro de conversión de *Jaun*, *Ian* en Igan, o a la inversa, y todavía no le basta, pues tiene usted que explicarme qué es eso de *dea*. No puede bastar decir que la *g* de *Igande* es pegadiza, porque entonces el resultado es que para mí *Ian*=comer=señor; lo cual me parece enorme sencillamente.

La verdad es, mi querido *Txadon-Zaya*, que no me gusta introducir en estas investigaciones conceptos tan eclesiásticos como los que usted trae. Son un arma peligrosísima en boca de los simples profanos. Usted y yo, que nos conocimos en Urnieta el día de San Ignacio, hace unos seis o siete años, creo debemos dejarlo sin excepción alguna, para los doctores.

BARAZAR.

A "Barazar".

También yo quiero terminar. Usted dice que el día (no se si la palabra *dia* o sus acompañantes, o el *dia-tiempo*) se decía en latín en acusativo. Pues el *dia-nombre*, es una enormidad decir que se decía su uso más frecuente en acusativo. Y el *dia-tiempo*, el *cuándo*, la *fecha*, llamela como guste, es otra enormidad decir que se usaba en acusativo. No acierto de saber lo que usted afirma. Así es que espero a que precise usted su afirmación y que me traiga la cita de Meyerlübke. Mientras tanto, estamos perdiendo el tiempo.

ORIXE.

Droguería y perfumería

Juan Gogénola. Plaza Arriquibar. T. 11.

Academia de Ciencias Médicas de Bilbao

Conferencia del doctor Sanchis Banús

El martes, día 12, a las siete de la tarde, dará una conferencia acerca de "Las nuevas nociones sobre encefalopatías vasculares" el eminente neurólogo madrileño señor Sanchis Banús.

Quedan invitados a esta conferencia todos los profesionales de las ciencias médicas.